# Gurasoen prestakuntza, familia, eskola eta komunitatearen arteko harremanen esparruan

*J.M. Maganto Mateo*
*I. Bartau Rojas*

Hezkuntzarako Ikerkuntza eta Diagnosi-Metodoen saila
Euskal Herriko Unibertsitatea

**GAKO-HITZAK:** Familia. Hezkuntza-erakundeak. Gurasoen formakuntza. Eskola eta komunitatea.

Familia, eskola eta komunitatea dira haur eta gazteen sozializaziorako testuinguru nagusiak. Testuinguru horiek ahalmena daukate haurren garapena eta heziketa bultzatu zein oztopatzeko. Ikuspegi sistemiko, ekologiko eta ebolutibotik familia batek hainbat hobeto beteko ditu bere zereginak zenbat eta beste heziketa sistema lagungarri batzuekin lotura ugariago eta aberasgarriagoak mantendu.

Gurasoen prestakuntza familia, eskola eta komunitatearen arteko lankidetza bultzatzeko gauza izan daitekeen estrategia bat da, baina estrategia horren eraginkortasuna ezberdina izango da erakunde sozial, politiko eta hezitzaileen arteko koordinazio eta kontsensu mailaren arabera. Horri dagokionez, nahiz eta denborarekin gero eta interes gehiago dagoen lankidetzan jarduteko, errealitateak erakusten du ekintza horiek puntualak izaten direla eta, batzuetan, eragile dituzten pertsonen borondate edo ekimenaren emaitza baizik ez. Orobat ikusten da arazoak daudela programa horiek koordinatzeko eta, behin martxan jarri ondoren, bizirik mantentzeko.

Lan honetan gurasoen prestakuntza hezkuntzaren kalitatea hobetzeko elementu gisa aurkezten da. Aurrena, gurasoen prestakuntzarako programen kontzeptu eta ezaugarriak aztertzen ditugu eta kontzeptu horren funtsezko oinarriak azaltzen. Bigarren zatian gai honetaz gaur egun garatzen ari diren aztergaietariko batzuk jasotzen ditugu eta etorkizunean konpondu beharreko arazo nagusiak aipatzen ditugu, egileen iritziz familiaren eta erakunde hezitzaile eta sozialen aldetik erantzun bat hartzeko zain daudenak.

## 1. KONTZEPTUAK MUGATUZ: GURASOEN PRESTAKUNTZA, GURASO IZATEKO HEZIKETA ALA GURASO ESKOLAK?

Literaturan esanahi bereko bi deitura aurkitzen dira, *gurasoen prestakuntza (parent education*) eta *guraso izateko heziketa (education about parenthood; parenthood education*); kontzeptu biak sinonimotzat erabili dira batzuetan eta bestetan aldiz adiera ezberdina ematen zaie kontzeptuaren hedadura eta interbentzioaren subjektuak ezberdinak direlako.

*Gurasoen prestakuntza* (*parent education*) deiturarekin ahalegin formal bat adierazten da gurasoen kontzientzia areagotu eta beren guraso gaitasun eta konpetentzien erabilpena indartzeko. Gurasoen prestakuntza «haurren heziketaren zati bat da eta haurren garapena bultzatzeko metodo bat» (Cataldo, 1991:17) gurasoen ezagupenak eta trebetasunak ugalduz haurrek euren garapenean dituzten beharrizanei erantzuteko. Gurasoen heziketa «sentsibilizazio, heziketa, trebakuntza edo hezkuntza arloko gurasoen balore, jarrera eta praktikak argitzeko ariketa bat da» (Boutin eta Durning, 1997:24) eta bere baitan hartzen du «sentitzeko, imajinatzeko, ikertzeko, ikasteko eta ezagupen batzuk erabiltzeko ahalmenak perfekzionatzera bideratutako garapen indibidualeko prozesu bat» (Durning, (1995:39). Orobat definitu da honela: «gurasoek beren borondatez onartzen duten ikasketa ekintza multzo bat helburutzat duena heziketa eredu egokiak hornitzea familia esparruan edota dagoeneko aplikatzen diren heziketa praktikak aldatu eta hobetzea haurretan onuragarriak irizten diren portaerak indartzeko eta galgarriak irizten direnak ezabatzeko» (Vila, 1997a). Hortaz, gurasoek euren haurrak hezteko behar dituzten trebetasun eta gaitasunak garatzeko lana da gurasoen prestakuntza hitzez izendatzen dena.

*Guraso izateko heziketa* (*parenthood education*) zera da, «ahalegin programatu bat helburutzat duena haurren haziera eta heziketari buruzko ezagupenak, baieta familia sistemaren nahiz haurrak zaindu eta hezteko sistemaren trebetasunak, aldatu edo hobetzea». Definizio hau ezberdina da gurasoetan zentratu diren beste batzuen aldean, hauek definiziotik kanpo utzi baitituzte bai haur/gazteak eta baita ere guraso ez izan arren haur zaintzan inplikatuta dauden pertsonak, trebetasunetako prestakuntzaren ezaugarria eta sistema gisa ulertutako familiaren dimentsioa falta zaienak. (Brock, Oertwein eta Coufal, 1993:88).

Mugatzea komeni den beste kontzeptu bat, arestian esandakoen ildotik doana, *Guraso Eskolak* delakoa da. Izen herritarrago horrekin gurasoei prestakuntza emateko ekintza jakin batzuk izendatzen dira, oinarrian hauxe direna: «denboraldi luze samar batean burutzen den gurasoendako arlo psikipedagogiko eta anbientaletako prestakuntza plan sistematiko bat» (Brunet eta Negro, 1985a:21). Kontzeptu hori ikastetxeetatik eta ikastetxeetan euretan martxan jarri diren prestakuntza taldeekin lotua dago, nahiz eta hori ez den bere ezinbesteko ezaugarria (Brunet eta Negro, 1985a), posible baita beste komunitate gune batzuetatik antolatuak izatea. Guraso Eskolen ezaugarri bereziak —eta hitzaldi isolatuetatik, informazioko hitzaldi zikloe-

tatik edo Ikasleen Guraso Elkarteen bileretatik ezberdin egiten dituztenak—honako hauek dira: sistematizitatea, erregularitatea, egitura, denborako jarraipena eta iraupen luzea.

Gurasoen prestakuntza, Gurasotzarako Hezkuntza alorraren barruan kokatzen da, eta hau berriz Familia-Bizitzako Hezkuntza (*Family Life Education*) esparruko gune tematikoetariko bat da (Arcus eta Thomas, 1993). Izaera prebentibo eta ebolutibo hain nabarmena daukan ikuspegi honek gizabanako eta familien ongizatea segurtatzea bilatzen du bizitzaren zikloan zehar ezagupenak eta familia-bizitza hobetuz eta gero eta hartzaile gehiagotara zabalduz.

## 2. **JUSTIFIKAZIOA ETA OINARRIZKO PRINTZIPIOAK**

Gaur egun badira hainbat arrazoi eta adierazle gurasoen prestakuntza gauza beharrezkoa egiten dutenak eta arlo honetako programak justifikatzen dituztenak. Hona hemen batzuk:

1. Gurasoek guraso lana egoki betetzeko daukaten desioak —batez ere aldaketa handi eta ugariko garaietan— beharrezkoa egiten die euren oinarrizko guraso zereginak berrikustea eta rol berriak asumitzea. (Brock, Oertwein eta Coufal, 1993).
2. Familiaren nuklearizazio prozesuak, komunitatearen higadura, rolen bereizketa eta espezializazioa, familia bateko belaunaldien arteko urruntasun geografikoa eta etxetik kanpoko lanaren hazkundea (Harmin eta Brim, 1980:14).
3. Dibortzioaren hazkundea eta familia berrosatuak, haurrekiko abusuak eta lazakeria, arazo emozionalak eta nerabe haurdunen hazkunde nabarmena (Hicks eta Williams,1981).
4. Gurasoek duten ustea gogorragoa dela guraso izatea gaur egun garai batean baino, haur eta nerabeen droga kontsumoak eragindako kezka, nerabeen arteko suizidio indizeak (Fine eta Henry, 1991).
5. Guraso bihurtzeak aldaketa handiak dakarzkio bakoitzari bere bizitzan zeren guraso rolari egokitzeko prozesu jarraitu bezain konplexu bat baitakar (Cataldo, 1991), batez ere erantzukizun berriak dakartzaten gurasotzaren fase ezberdinetan (Galinsky, 1981, aipatua in Wapner, 1993).
6. Haurren eta gurasoen hezkuntza dugu tresna eskuragarriena eta eraginkorrena nazioek beharrizanak estaltzeko duten ahalmena handitzeko / giza garapenaren nahikariak erdiesteko (Hobbs, Dokecki, Hoover-Dempsey, Moroney, Shayne eta Weeks,1984).

Gurasoen prestakuntzaren garapena eta bilakaera historikoari begirada bat emanez (Tavoillot, 1982) ikusten da gurasotzaren eta seme-alaben heziketaren arteko harremana ez dela izan beti bakarrik gurasoen menekoa, bai-

zik eta —batez ere ikuspegi ekosistemikoaren eraginez— ingurumenarekiko barne eta kanpo harreman sistema sare batean kokatzen dela. Gurasoen prestakuntza *familia-eskola-komunitate harreman sarearen barruan ikusi behar da*. Helburua hau da: heziketa ekintzak familia, eskola eta komunitatearen artean koordinatzea elkarren lankidetzan arituz haur/gazteen garapen eta hezkuntzari laguntzeko. Prozesu horretan hezitzaileek rol edo zeregin bikoitza dute: aldaketa eragile izatea eta maila ezberdinetako heziketa eragileen arteko harremanak bideratzea. Metodoak prebentiboak dira funtsean, baina aintzat hartzen dira zailtasunak eta ezberdintasunak, eta gurasoen prestakuntza programak haur/gazteen, familien, eskolen eta komunitatearen beharrizanei erantzuteko bideratutako programa komunitario zabalago batzuetan integratzen dira, kontuan izanik erakunde horiek programak garatzeko dituzten inguruabarrak eta baliabideak.

Azpimarratu behar da gurasoen prestakuntzaren arloa sustatu eta garatu beharreko arlo bat izanik ere ez dela ahaztu behar eskola eta komunitatearen helburuekin koordinatu behar dela. Ez da hori lagundu behar den arlo bakarra, beti aurkituko ditugu-eta heziketa formatu hori baliatzeko eta horretan parte hartzeko arazoak dituzten guraso eta familiak.

Familia-Bizitzako Heziketako (*Family Life Education*) markoaren printzipio orokorretan oinarriturik (Arcus eta Thomas, 1993), gure ustez hauexek dira gurasoen prestakuntzaren zutabeak praktikan:

1. *Gurasoen prestakuntza prebentiboa da funtsean, baina zailtasunei erantzuten die*

Prestakuntzaren helburua populazio jakin bateko familietako heziketa praktikak garatu eta hobetzea da, familiekin egiten diren beste interbentzio indibidualetan ez bezala (Pourtois, 1984). Hala ere, guraso izateko heziketak batez ere helburu prebentiboa eduki arren «prebentziorako ez eze konponbideak emateko ere balio du, eta azken 10 urtean gurasoak, justizia epaitegiak eta adimen osasuneko zentro komunitarioek uste dute guraso izateko heziketa dela familiak gehienik kolpatzen dituzten arazo batzuk konpontzeko bidea» (Brock, Oertwein eta Coufal, 1993). Prebentzio/konponbide izaera hori ez da ikusten bakarrik AEBetako testuinguruan, zeren gaur egun geure testuinguru sozio-kulturalean gurasoen prestakuntza gero eta sarriago eskatzen-eskaintzen-bideratzen-agintzen-derrigortzen baita zenbait erakunde komunitariotatik, hala nola Osasun Zentroetatik edo dibortzio prozesuetan gurasoen aholkulari diren, edo bestela abusu kasuetan epai bidez gurasotza klaseak hartzeko agintzen dituzten Justizia Epaitegietatik.

2. *Muntaduna da bizitza-ziklo guztian zehar*

Gurasoen prestakuntza garapenaren printzipioan finkatu behar da, Familiaren Garapen Teorietan eta Familiako Bizitza Zikloaren ikuspegietako

ekarpenetan oinarriturik. Familiako bizitza-zikloko etapetan badira aldaketa identifikagarri ale batzuk adin biologikoari bakarrik lotuta ez daudenak baizik eta aldagai sail baten interakzioaren emaitza direnak, dela biologikoak, historikoak, psikologikoak, ingurunekoak, ekonomikoak, kulturalak edo sozialak. Epealdiak eta aldaketak aldagarriak dira eta oso ezberdinak izan daitezke pertsona eta kulturen arabera.

Programa batzuek zerikusia dute gizabanako eta familien garapen normatiboari lotutako alderdiekin (aita edo ama bihurtzearekin), adinarekin (nerabezaroa), edo gertakariekin (familiako kide bat galtzea), edo faktore horien arteko konbinazio batekin (aurreneko umea nerabezaroan izatea). Beste programa batzuk garapen ez-normatiboan oinarritzen dira, hau da, zerikusia dute gizabanako edo familia guztiak ez baizik eta bakar batzuk ukitzen dituzten beharrizan berezi eta trantsizioekin (beharrizan bereziko haurren guraso izatea, dibortzioa, familia berrosatuak, guraso nerabeen prestakuntza).

### 3. *Familia, eskola eta komunitatearen beharrizanei erantzuten die*

Une jakin batean dauden beharrizanak edota etorkizunean sor litezkeenak dira gurasoen prestakuntza programen helburu, justifikazio eta estrategien oinarria. Gurasoen prestakuntza programak zenbat eta zuzenkiago lotuta egon gizabanako bakoitzaren, familiaren eta komunitatearen beharrizanekin, aukera gehiago dago programa horiek eraginkorrak izateko eta lagungarriago suertatzeko gizabanakoaren zein familiaren ongizatearentzat. Guztiarekin ere, ikusten da badirela zailtasun batzuk bai beharrizan horiek kontzeptualizatzeko eta bai horiek identifikatu eta ebaluatzeko. Hiru beharrizan mota bereizi daitezke:

a) *Sentitutako* beharrizanak, hots, gizabanakoek eta familiek eurek adierazten dituzten beharrizanak. Beharrizan hauek detektatzeko prozesuak baditu bere zailtasunak, esaterako nola sentitu ezagutzen ez den zerbaiten beharra edo nola adierazi sentitzen den zerbait.
b) Beharrizan *ebolutiboak*, hots, gizabanako eta familia gehienek euren bilakaera ebolutiboan zehar izan ohi dituzten beharrizanak (esaterako, mantarreko haur bat haztea, nerabezaroko aldaketa sexualak ondo eramatea edo jubilaziorako prestatzea). Orokorrean, era honetako beharrizanak identifikatzeko, dagokion arloko literatura enpirikoari eta familia bizitzako hezitzaileen esperientziari begiratzen zaio.
c) Beharrizan *sozialak,* hots, familien bizitzan eragina duten oraingo nahiz geroko baldintza politiko, ekonomiko eta sozialetatik sortzen direnak (esaterako, etxebizitzako oinarrizko baldintzak, justizia soziala, eta abar).

Praktikan, beharrizanak detektatzeko zailtasun handiena da ez dagoela nahitaezko korrespondentziarik hiru beharrizan mota horien artean eta, beraz, arazoak sortzen direla erabakitzeko zeintzuei eman lehentasuna.

4. *Ikerketa-arlo multidiziplinarra da eta programak erakunde mota ezberdinetatik eskaintzen dira*

Printzipio honen bidez aitortzen da gurasoen prestakuntzarako erabiltzen diren kontzeptuak, printzipioak eta metodologia hainbat diziplina zientifikotik heldu direla (ekonomia, zuzenbidea, medikuntza, filosofia, psikologia, gizarte lana, soziologia, hezkuntza eta abar).

Gurasoen prestakuntza programak hainbat erakunde hezitzaile eta sozialetatik eskaintzen dira, baina hauek dira erakunde usaiakoenak:

a) Beren Ikasleen Guraso Elkarteen bidez eta Zuzendaritza eta irakasleekin koordinaturik gurasoen prestakuntza bultzatzen duten ikastetxeak.
b) Zerbitzu sozial eta komunitarioak, esaterako udaletako Gizarte Ongizate Batzordeak edo anbulatorioak.
c) Elizetako eta Familiendako Orientazio Zentroetako erlijio erakundeak (Romero, 1998).
d) Familiendako orientazio zentro eta zerbitzu pribatuak.
e) Berrikitan sortutako beste erakunde mota batzuk, hala nola lan esparrua eta GKEak.

Azpimarratuta dago nolako garrantzia daukan erakunde ezberdinen arteko lankidetzak bikoiztu ez egiteko familien beharrizanak identifikatzeko prozesua hobetzeko eta beharrizan horiei erantzuteko erabiltzen diren baliabideak. Ohartu da badaudela zailtasun batzuk erakundeen eskuduntzak zehaztu eta mugatzeko. Kezka horiek eta erakunde ezberdinen arteko lehiak bidea zaildu dezakete gurasoen prestakuntza lankidetzan oinarritutako ahalegin komunitario bat izan dadin.

5. *Bizitza pertsonal, familiako eta sozialari aurre egiteko ahalmen sentipena («empowderment») indartzera bideratutako ekintza funtsean hezitzaile bat da*

Gurasoen prestakuntza programen izaera hezitzaileak ez du esan nahi, batzuek uste zuten bezala, horien helburu nagusia ezagupenak transmititzea edo estrategiak irakastea denik. Gaur egun bilatzen dena da gurasoek rol aktibo bat joka dezatela euren garapen pertsonaleko prozesuan, hobetu ditzaten euren familia arteko bizitza modu konstruktiboan burutu eta egoki kontrolatzeko behar dituzten gaitasun eta trebetasunak. Hortaz, helburua ez da ezagupenen pilaketa hutsa, baizik eta «*empower*» delakoa (Peters,1967 aip. in Arcus eta Thomas, 1993). *Empowerment* delakoa gizarte eta komunitate esparruetan era askotako ekintzak burutzeko marko kontzeptual bat da. Fine-ren arabera (1991: 30.31), Rappaport (1981) eta Dunst-en (1985) lanetan inspiratua dago, «*autonomizazio*» gisa kontzeptualizatzen da eta zera adierazten du: «gizabanakoari autonomia emateko prozesua eta autonomia hori garatzeko burutzen den prozesua» (Boutin eta Durning, 1997: 245).

Kontzeptuak «gizabanakoari erabaki argiak hartzeko eta bere bizitzaren kontrola asumitzeko aukera emateko beharra adierazten du» (Boutin eta Durning, 1997: 245). Heziketaren kontzeptu horretatik ezin parekatu daitezke heziketa prozesua eta informazio horniketa hutsa, gertakarien bereganatze pasiboa edo trebetasunen garapen estua; aitzitik, horiez gain ikaslearen autonomia ere bultzatu behar da helarazi zaizkion ezagupenak *erabil ditzan*, erantzukizunez aukeratu eta arabera obratzeko.

*Empowerment* delakoa bi ustetan oinarritzen da (Marín eta Rodriguez, 2001):

1) Gizakiaren bizitza determinatzen dituzten faktoreen gainean gizabanako batek dituen botere edo kontrol sentipenek bitartekaritza lan funtsezkoa jokatzen dute haren bizitzan. Printzipio hau psikologia kognitiboaren ekarpenetan oinarritzen da, bai kontroleko konstrukto positiboei dagokienez (autoestimua, autoeraginkortasuna eta kontrolaren lokusa), eta bai kontrolik ezakoei dagokienez (indefentsio ikasia).

2) Nolaz boterea modu ezberdinean banatuta dagoen gizarte taldeetan, uste izateko da gizabanakoen arazoen iturri nagusietariko bat ez dela pertsona bera, baizik eta sistema edo egitura makrosozialak eurak.

Era berean, posible da *empowerment* hitzaz aditzea prozesu bat zeinaren bitartez «botere gabeko» pertsona, erakunde edo taldeak:

1. Euren bizitzako testuinguruan diharduten botere dinamikak ezagutzera iristen diren.
2. Euren bizitzaren gaineko nolabaiteko kontrol bat iristeko gaitasun eta trebetasunak garatzen dituzten.
3. Kontrol hori besteen eskubideak kolpatu gabe baliatzen duten.
4. Kontrola lortzeko identifikatzen den bere talde edo erreferentziazko komunitateko beste kideen *empowerment-a* sostengatzen/indartzen duten.

Ideia hauek familia, eskola eta komunitatearen arteko harremanak ulertzeko aplika daitezke. Ikusten dugunez, ikuspegi hau botere interpertsonalaren hazkuntza indibidualaz haratago doa. *Empowderment* prozesurako funtsezkoa da gizaki eta taldeen gain dauden eragin politiko, ekonomiko eta sozialak aitortzea. Botere dinamikei buruzko enfasi honek esan nahi du arazoak, euren biktimei baino gehiago, sistemei dagozkiela, baina era berean onartzen da arazoak konpontzeko berdin joka daitekeela pertsonen gainean arituz nola gizarte sisteman aldaketak sartuz.

Ikuspegi horretatik gurasoen prestakuntzak helburu bikoitza dauka: gurasoen aldaketa pertsonala erraztea eta familia-bizitza hobetzeko aldaketa sozialak bultzatzea.

### 6. *Era askotako familia baloreak aintzat hartu eta errespetatzen ditu*

Orokorrean, baloreak luzaz izan dira familia heziketako gai garrantzitsu eta batzuetan korapilatsu bat (Arcus eta Daniels, 1993 aipatua in Arcus

eta Thomas, 1993), beharrezkoa baita erabakitzea zein balore sartu programetan eta zein utzi kanpoan, nola uztartu hezitzaileen eta ikasleen baloreen arteko ezberdintasunak edo ikasleen euren arteko balore ezberdintasunak, edota baloreen heziketako zein ikuspegi den egokiena eta eraginkorrena.

Arlo honetan baloreek daukaten garrantzia era askotan aipatu da (Arcus eta Thomas, 1993:13): 1). Programetako helburuek, izatez, baloreei buruzko baieztapenak baino ez dira; 2) programetan erabiltzen diren ikasketa-esperientzia askotan baloreekin zerikusia duten ekintzak erabiltzen dira, esaterako baloreei buruzko galdetegiak edota baloreei buruzko eztabaida eta debateak; eta 3) Parte-hartzaileen jarrera sozial eta baloreak taxutzeko metodologia egokiak garatzea da profesionalaren eginkizun garrantzitsuetako bat.

Modu askotara jokatu da baloreen arazoaren aurrean: aintzat ez hartzea, balore multzo jakin bat irakastea doktrinamendu gisa, parte-hartzaileei aukera ematea euren baloreak euren kasa argitu ditzaten edo gurasoei prestakuntza ematea gauza izan daitezen baloreez gogoeta egiteko (Arcus eta Daniels, 1993).

### 7. *Familia eta familiakideen aniztasunari erantzuten dio*

Printzipio honek borondate bat adierazten du gurasoen prestakuntza hasieran izan zena baino igualitarioagoa eta kulturalki muntadunagoa izan dadin eta aintzat har ditzan generoa, klase soziala, arraza eta kultura.

Galdetu izan da gurasoen prestakuntzako programa eta ikasgaietan gizonek eta emakumeek daukaten ordezkaritzak ez ote duen transmititzen ikuspegi patriarkal edo maskulino bat eta ez ote duen indartzen generoaren estereotipoa (Arcus eta Thomas, 1993).

Gurasoen prestakuntza programa bat ere garatu da gizon eta emakumeen elkarrekiko erantzukizuna sustatzeko lantokian eta familia bizitzan (Bartau, Maganto eta Echeverría, 2002; Lamb,1997; Maganto, Bartau eta Echeverría (moldiztegian).

Bestalde, kritikatu egin da gurasoen prestakuntzak, erabiltzen diren ikasgaien bitartez, «klase ertain zuriaren» baloreen aurreiritziak bideratu izana, edo gurasoen prestakuntza programa askotan ez direla kontuan hartzen haurren haziera eta heziketa praktiketako ezberdintasun kulturalak edo irabazpide gutxi edo ertaineko gurasoen beharrizanak.

### 8. *Aldez aurretiko plangintza batean oinarritzen da*

Gurasoen prestakuntza helburutzat jo daiteke bere baitan, eta era berean familia, eskola eta komunitateko harremanen arloan sortzen diren beharrizanei erantzuteko helburu batzuen zerbitzura jarritako tresnatzat. Beraz, nahitaezkoa da gurasoen prestakuntza programa aldez aurretik planifikatuta egotea elementu hauetatik abiaturik:

1) Gurasoen prestakuntza premiak detektatu eta aztertzea.
2) Prestakuntza programaren helburuak mugatzea.
3) Prestakuntza programaren edukiak deskribatzea.
4) Programaren metodologia garatzea (prozedura, jarduerak eta estrategiak, baliabide material eta humanoak eta denbora epea).
5) Programa garatu eta martxan jartzea.
6) Etengabeko ebaluazioa.

9. *Gurasoen prestakuntzan espezializatutako gidari bat eskatzen du*

Gure testuinguruan maiz aurkitzen dira gurasoen prestakuntza programak antolatu eta dinamizatzen dituzten bolondresak. Alta, esparru hori zeharo esparru profesionala da. Garrantzitsua da profesionalek euren gaitasunak gara ditzaten eta balia ditzaten horretarako, batetik, prestakuntza tekniko eta profesionaletik heldutako kualifikazioak eta, batetik, ezagupen pertsonal batzuk nola baitira portaera soziala, testuinguruaren ezagupena, taldean lan egiteko gaitasuna, taldeak dinamizatzeko oldarra eta malgutasuna, aldaketarako irekitasuna eta gurasoen prestakuntzarako munta duten gainerako ezaugarriak.

10. *Etengabeko ebaluazioa*

Etengabeko ebaluazioa (Sanchez Vidal, 1996) beharrezkoa da gurasoen prestakuntzako programetan ezen:

—*Erantzukizun sozial bat dauka,* programa horietako batzuk fondo publikoekin egiten diren ezkero. Jarri diren helburuekiko programak dituen kostu eta eraginkortasunak markatzen du erantzukizun hori.
—*Kudeaketa ahalbidetzen du* programen eraginkortasuna hobetzeko eta planeatutako helburuak lortzeko eginkizuna duten arduradun edo kudeatzaileek erabakiak modu arrazionalean hartzeko.
—*Ezagupenak sortzen ditu* onurez eta zailtasunez, gizarte arazoen eragin eta konponbideez eta arazo horiek konpondu nahi dituzten programa eta politiken emaitzez. Kakoa da jakitea gurasoen prestakuntza programek «zergatik» dituzten dauzkaten ondorioak.

## 3. GURASOEN PRESTAKUNTZA PROGRAMEN EZAUGARRIAK

Gurasoen prestakuntza planen antolaketa eta, ondorioz, helburuen definizioa, edukiak, eta ebaluaziorako metodo eta prozedurak ezberdinak dira parte-hartzaileen beharrizanen arabera, ekimenak abiapuntutzat daukan testuinguruaren ezaugarrien arabera, programen oinarrian dauden ikuspegi teorikoen arabera eta orientatzaileak aukeratutako interbentzio ereduen

arabera. Jarraian programa horien garapenaren ezaugarri nagusiak aztertuko ditugu. (Bartau, Maganto eta Etxeberria, 2001).

### 3.1. **Xedea eta helburuak**

Programa gehienek bi helburu orokor bilatzen dituzte: haurraren garapena estimulatu eta gurasoei lagundu (ezagupenak, trebetasunen garapena, botere sentipena eta autokonpetentzia).

Gurasoen Elkarte Europarrak, bere *Gurasoen prestakuntza programa pilotoaren garapen eta ebaluazioari buruzko txostena* (2000) izeneko dokumentuaren arabera hauek dira programa horien helburuak:

1. Haurren ikasketa esperientzia hobetu eta bizitzako euren aukerak optimizatzea.
2. Eskola porrota eta hezkuntzako desabantailak gutxitzea.
3. Guraso guztiendako aukera berdintasuna bultzatzea etengabeko heziketa gehiago eskainiz.
4. Gurasoen artean etengabeko ikasketaren kultura zabaltzea.
5. Gurasoek euren seme-alaben heziketan duten inplikazioa hobetzea.
6. Gurasoek hezitzaile gisa egiten duten lanaren garrantzia aitortzea.
7. Guraso eta seme-alaben arteko harremanak hobetzea.
8. Sustatu egitea gurasoen partaidetza aktiboa heziketa prozesuetan eta euren inplikazioa familia, eskola eta komunitatearen arteko harremanetan.

Gurasoen prestakuntza programen helburuak askotarikoak izan arren, guztiak aztertu ezkero ageri da denak honako esparru hauetakoren batean, edo zenbaitetan, zentratzen direla (Fine eta Brownstein, 1983) (Gurasoen Elkarte Europarra, 2000):

A) *Informazioa partekatzea*

Gidariak gonbidatu egiten ditu parte-hartzaileak informazioa partekatu dezaten familia barruko esparru eta prozesu hezitzaile-interakziozkoei buruzko gertakariak, kontzeptuak eta informazio teorikoa aurkeztuz. Liburu, panfleto eta kassette asko daude guraso izateari eta haurren garapenari buruzko informazioa modu erraz eta atseginean emateko.

B) *Trebetasunak eskuratu eta garatzea*

Informazioa partekatzea sarritan ez da nahikoa izaten portaerak aldarazteko zeren jendeari *zer egin behar duen* esatea inoiz ez da izan heziketarako bide eraginkorra. Horregatik, informazioa partekatzeari beste elementu bat gehitu ohi zaio: trebetasunak lantzea. Teknika jakin batzuk erabili

ohi dira, hala nola role-playing, gurasoei trebetasun espezifikoak irakasteko eta partekatutako informazioa sostengatzeko portaeraren modelaketa eta entsegua. Gurasoei irakasten zaie nola erabili «ni mezuak», arreta erreflexiboa, modelatua, errefortzamendua, estimulazioa, nola egin familia bilerak, negoziazioa, mugak nola jarri, denbora nola erabili eta seme-alaben portaera «kontrolatzen». Trebetasun hauek lortzeko ahaleginek ezaugarri komun bat daukate: posible da emaitzak portaeretan gauzatuta ikustea.

C) *Sinesmenen aldaketa*

Era honetako helburuekin bilatzen dena da, batetik, gurasoen autokontzientzia eta autoezaguera garatzea gurasotzaren estiloari buruz, gurasotzaren sorrerari buruz eta gurasotzak seme-alaben garapen eta heziketaren gainean duen eraginari buruz; bestetik, sinesmen mota batzuk aldatzea, hala nola baloreak, jarrera hezitzaileak, garapen eta hezkuntzari buruzko teoria inplizituak edota guraso-haurren arteko harremanetako portaeraren pertzepzioa.

D) *Arazoak konpontzea*

Familia bizitzako arazoak konpontzea da gurasoen prestakuntza taldeetan sarri bilatzen den laugarren helburu mota. Prozesuan zehar gidariak gurasoei etengabe estimulua eta atzeraelikadura konstruktiboa hornitu behar die. Helburua da gurasoei irakastea zein den arazoak konpontzeko oinarrizko paradigma, haurren garapenaren inguruko hainbat arazori aplikatu dakiokeena. Arazoak konpontzeko prozesuak fase hauek ditu: a) arazoa identifikatu; b) arazoa nork daukan erabaki; c) jarduera alternatiboak esploratu; d) ekintza horietatik hel daitezkeen emaitzak aurreikusi; e) plan bat aukeratu eta martxan jarri; eta f) martxan jarritako planaren eraginkortasuna ebaluatu.

E) *Ahalmen eta autogaitasun sentipena*

Programa hauekin bilatzen diren beste helburu mota bat da «*guraso izateko ahalmena izatea*» (Gurasoen Elkarte Europarra, 2000). Ekimen horietako gehienek «ahalmen gehiago» lortzeko metodo eta estrategiak lantzen dituzte, hots, bai guraso izateko potentziala eta bai eskura dauden heziketa baliabideak erabiltzeko trebezia handitzeko estrategiak.

Gaur egun ahalmena lortzeko helburu hau familia, eskola eta komunitatearen arteko harremanen esparrura zabaltzen da. Horri dagokionez, alderdi hauetako baten ahalmena handitzen bada beste alderdien ahalmena murriztuz egiten delako ustean oinarritutako jarrera tradizionalak gainditu nahi dira. Jarrera hori baliagarria izan daiteke batek bere burua kanpoko mehatxuetatik defendatu behar duen egoeretan, baina emaitza txarrak ekar

ditzake egoerak lankidetzan aritzea eskatzen duenean, esaterako eskola, familia eta komunitatearen arteko lankidetza eskatzen duten heziketa helburuak lortu nahi direnean. Holakoetan ideia hau garatzen saiatu behar da, hots, bakoitzaren ahalmena inplikatutako beste jokalarien ahalmenaren «hazgarria» (biderkatzailea) izan behar dela, eta alderantziz.

F) *Esperientzia partekatzea*

Guraso Elkarte Europarreko txostenean (2000) esaten den bezala, esperientzia da gurasoei zuzendutako edozein ekintzaren hasiera eta bukaera. Esperientziak prestakuntza jardueretarako edukiak eta adibideak eskaintzen ditu, gogoetarako oinarriak hornitzen ditu, eta talde-lanaren erdian kokatzen du gurasoek heziketari buruz hartzen dituzten erabakien oinarrian maiz dauden esperientzia pertsonal, sozial eta kulturalak.

Helburu esparru hauek *entitate elkargainkatuak* dira eta profesionalari dagokio erabakitzea horietako bakoitzaren pisu erlatiboa, kontuan izanik taldearen beharrizanak eta osaketa, transmititu nahi diren baloreen izaera eta programa mota batzuek indar gehiago egiten dutela mota bateko helburuak lortzeko beste mota batekoak baino (Fine eta Henry,1991).

Laburtuz, gurasoen prestakuntza programen helburu orokorra ez da ezagupen teorikoak edo informazioak transmititzea besterik gabe, edo familiaren errealitate sozial eta emozionaletik eta familiaren harreman saretik urruti aurkitzen diren portaera ereduak proposatzea. Aitzitik, helburua da aukera bat eskaintzea esperientziatik ikasteko, hots, gogoeta egiteko prestakuntza egoeretan eguneroko bizitzan eta esperientzian sortzen diren arazo, aukera eta baldintzez (Gurasoen Elkarte Europarra, 2000).

## 3.2. **Gurasoen prestakuntza ereduak**

Gaur egun gurasoen prestakuntzako hiru eredu bereizten dira, izen ezberdinak hartu dituztenak autoreen arabera. Adibidez, ezberdindu egin dira *Eredu Informatiboa*, *Eredu *Instruktiboa* eta *Eredu Soziala* (Velázquez eta Loscertales, 1987). Gurasoen Elkarte Europarraren iritziz (2000), honako hiru eredu hauek dira garrantzitsuenak:

*Prestakuntza tradizionaleko eredua*

Gurasoen prestakuntzako eredu metodologiko hau irakaskuntza akademikoan oinarritzen da. Ezaugarri hauek ditu:

—Gurasoen artean ezagupen eta informazio interesgarria handitzeko balio duten psikologia, pedagogia, pediatria eta bestelako sail batzuetako informazioaren transmisioan oinarritutako prestakuntza bat izatea.

—Tankera akademikoko metodologiak erabiltzea.
—Gidari-hezitzaileak «lider» zeregina betetzea eta gai izatea informazio zientifikoa zuzenki bezain modu atsegin eta ulergarrian komunikatzeko.

Eredu hau krisian sartu zen batik bat zerbaiti buruzko informazioa jasotzeak ez duelako esan nahi ezagupen hori aplikatuko denik edo portaera egoki bat hartzera eramango duenik.

*Praktikan oinarritutako prestakuntza eredua*

Hona hemen gurasoen prestakuntzako bigarren ereduaren ezaugarriak:

—Informazioa transmititzearekin batera ezagupen berriak modu eraginkorrean aplikatzeko teknikak ere irakasten dira.
—Parte-hartzaileen partaidetza maila handia eskatzen duten prestakuntzako metodologia «aktiboak» erabiltzen dira.
—Hezitzaileak «*entrenatzaile*» lana egiten du, esaterako ariketa, simulazio eta abarren bitartez parte-hartzaileei balio hezitzailea duten trebezia eta teknikak ikasten lagunduz.

Eredu honek daukan arazo nagusia da bere bitartez portaera hezitzaile desiragarriak proposatzen direla eta hortaz mugatu egiten dela gurasoek heziketa arloan erabaki propioak hartzeko duten gaitasuna.

*Botere eta esperientzian oinarritutako prestakuntza eredua*

Hirugarren eredu honetan aukerak sortzea proposatzen da parte-hartzaileek beren kabuz lan egin dezaten, beren rolari buruz gogoeta egin dezaten euren ulermena handitzeko, aprobetxatuz proiektu hezitzaileak martxan jartzeko aukera ematen duten testuinguruko baliabideak. Eredu honek ezaugarri hauek ditu:

—Parte-hartzaileen ahalmena garatzea existitzen diren baliabideak eskuratu eta erabiltzeko.
—Dauden metodologia guztiak erabiltzea eta parte-hartzaileen esperientzia konkretua erlazionatzea.
—Hezitzailea talde-lanaren eta komunikazio eta ikasketa prozesuen «*errazle*» bat bezala ikustea.

Nahiz eta foro zenbaitetan hiru eredu horiek sekuentzialki gainditutzat jotzen diren, lehenbiziko biei gauzaeztanak iritziz eta hirugarrenari ideala, azpimarratu behar da hargatik boterean eta esperientzian oinarritutako prestakuntza eredua interbentzio sozial eta komunitarioari aplikatutako *empowderment* delakoaren ikuspegian oinarritzen dela eta ez dituela zeharo baztertzen edo ahazten beste eredu biak baizik eta integratu egiten dituela,

kontzeptu metodologiko berri bat sortuz. Nahitaezkoa da helburu eta metodologia motak konbinatzea aitek, amek eta familiek dituzten beharrizan ugariei erantzuteko. Hiru ereduetako gidarien metodo, estrategia, prozedura eta ezaugarriak ez dira eskluienteak, aitzitik, elementu horietako asko elkarrekin azaltzen dira taldeko metodologian oinarritutako heziketa programetan zehar.

### 3.3. **Gurasoen prestakuntzako programen zailtasunak**

Hona hemen gurasoen prestakuntza programak gauzatzean sortu ohi diren zailtasun nagusiak (Cataldo, 1991:142-145):

a) Hasierako kaptazioa:

—Denbora arazoak, parte-hartzaileen ordutegiak eta laneko loturak.
—Helburuen ulermen eskasa gurasoen aldetik.
—Lehenago izandako esperientzia txarrak.
—Programen desegokitasuna gurasoen beharrizanekiko.
—Erakunde edo ikastetxearekiko errezelo eta beldurrak.
—Aldaketari beldurra.
—Programazio ilunak.

b) Ikuspegi eta balore gatazkak:

—Programaren oinarrian dauden baloreekiko gatazka.
—Parte-hartzaileen arteko nahiz parte-hartzaile eta hezitzailearen arteko gatazkak.

c) Prestakuntza eta gaitasun desegokiko langileak:

—Esperientziarik eza guraso taldeekin, nagusiekin edo familia mota batzuekin.
—Komunikaziorako gaitasun urria.
—Gatazkak konpontzeko trebetasunik eza.

d) Gurasoen interesa gutxitzea:

—Parte-hartzaileen kopurua denborarekin gutxitzea.
—Errealistak ez diren espektatibak edo edukien desegokitasuna.
—Material edo langile baliabide urriak.

e) Taldeetako funtzionamendu arazoak:

—Konfidentzialitate gutxi profesional edo parte-hartzaileen aldetik.
—Pertsona arteko dinamika desegokiak.
—Elkarrizketaren monopolizazioa.
—Taldekideen arteko edo gidariarekiko desafioak sinesmen edo jarduerei buruz.

—Elkarrizketa hariarekiko desbideraketak.
—Gurasoen arteko koalizio lehiakorrak sortzea.
—Parte hartzeari uko egitea.

f) Arazoak eskolan edo erakundean:

—Material edo langile baliabide eskasak.
—Gatazkak eskola edo erakundeko langileekin.

g) Jarraikitasunik eza:

—Programaren iraupen eskasa.
Parte-hartzaileen asistentzia irregularra.

### 3.4. **Programen eraginkortasunaren ebaluazioa**

Programen ebaluazioari buruzko datuak aurkeztu dituzten gurasoen prestakuntzako programen egile gehienek programa horien ondorio baikorrak azpimarratzen dituzte (Medway, 1991).

Azterketaren arabera gurasoen prestakuntza programak eraginkorrak dira zentzu hauetan (Cataldo 1991:36):

1) Haurren garapena hobetzen dute.
2) Familia harremanak hobetzen dituzte.
3) Gurasoek satisfazio eta autogaitasun sentipen hobea dute guraso gisa dagozkien zeregin eta erantzukizunei buruz.
4) Familia-eskola-komunitate harremanak hobetzen dituzte.

Alta, orobat aipatu dira programa hauen ebaluazioa egiteko arazo metodologiko batzuk, esaterako errigore gutxiko laginketa prozedurak, neurri gutxi sistematikoak, kontrol taldeen eza eta azterketa eskasia epe luzeko ondorioen jarraipena egiteko (Brock eta beste batzuk, 1993; Dembo, Sweitzar eta Lauritzen, 1985; Boutin eta Durning, 1997).

## 4. **GURASOEN PRESTAKUNTZA ARLOKO IKERKETA**

Gaur egun badira ikerketarako lau arlo interesgarri. Hona hemen:

a) Gurasoen prestakuntza programen diseinu eta ebaluazioa.
Gaur egun Espainiako ikerketa talde batzuk gurasoen prestakuntza programa, baliabide eta materialak garatu eta ebaluatzeko lanak egiten ari dira mota ezberdinetako guraso eta familien beharrizanei era ezberdinetako testuinguruetan erantzun ahal izateko. Hona hemen lan horietako batzuk:

—Familiako korresponsabilitatea garatzeko gurasoen prestakuntzarako programa baten diseinu eta ebaluazioa (Maganto, Bartau eta Etxeberría, moldiztegian)
—Esperientzia aberasteko gurasoendako programaren garapen eta ebaluazioa (Máiquez, Capote eta Rodrigo, 1999).
—ECCA irratiaren bidezko prebentzio primarioko gurasoendako programa erdi-presentzialaren garapen eta ebaluazioa (Máiquez, Capote, Cabrera, Martín eta Rodrigo, 2000).
—Gurasoen prestakuntzako programa pilotu baten diseinu eta ebaluazioa (Gurasoen Elkarte Europarra, 2000).
—Drogen kontsumoaren aurkako prebentzioa familian: premien ebaluazioa (Martínez eta beste batzuk, 2001).
—Familia adoptatzaileen prestakuntza (Triana eta Simón, 2000).
—Arrisku egoeran aurkitzen diren amendako programa presentzial baten garapena (Martín eta beste batzuk, 2000).
—Gurasoen prestakuntzarako programa eta materialen garapena (Palacios eta Hidalgo, 1996).
—Beharrizan hezitzaile bereziko haurrak dituzten gurasoendako material eta baliabideen diseinu eta ebaluazioa (Giné, 1995; Sastre eta Riba eta beste bazuk, 1998.

b) Familia ebaluazioko tresna eta metodoen garapena

—Familia ebaluazioko tresna eta baliabideak (Musitu eta García, 2001).
—Beharrizanen ebaluazioa familia esparruan (Palacios, Lera eta Moreno, 1994)

c) Familia, eskola eta komunitateko harremanak hobetzeko estrategia eta prozeduren garapena.

—Familia eta ikastetxearen arteko lankidetza estrategien eta beharrizanen ebaluazioa (Martínez, 2000).
—Familia, eskola eta komunitatearen arteko harremana sustatzeko programen garapena (Maganto, Bartau eta De la Caba, 1998; Bartau, Maganto, Etxeberría eta Martínez, 1999; Maganto, Bartau, Etxeberría eta Martínez, 2000).
—Familia eta eskolaren arteko harremanen arloko beharrizanak detektatzeko ebaluazioa eta prozedurak (Maganto eta Bartau, 2003).

d) Hezitzaileen prestakuntza

—Gurasoen prestakuntza programetako hezitzaileak prestatzeko metodologiaren diseinu eta garapena (Bartau, Maganto eta Etxeberría, 2003).

e) Teknologia berrien garapena

—Familia eta teknologia berriak (Dendaluce eta beste batzuk, 2002).

## 5. **GURASOEN PRESTAKUNTZA: EGITEKE DAUDEN GAUZAK**

Azken urteotan hazi egin da gurasoen prestakuntzarekiko interesa eta eskabidea bai gurasoen euren aldetik eta bai, besteak beste eta nagusiki, Ikasleen Guraso Elkarte, Ikastetxe eta Udaletako Gizarte Ongizate Departamentuen aldetik. Talde eta erakunde horien ustez gurasoen prestakuntza kalitatezko hezkuntzaren funtsezko osagaia da.

Esparru horretan antzematen den bilakaera zantzuak alde batera utzita, komenigarria da laburtzea gurasoen prestakuntza garatzeko, eta etorkizunean bere helburuak bete ditzan, behar diren eta oraindik lortu gabe dauden gauza batzuk:

1. Jarraitu egin behar da gurasoen prestakuntzaren kontzeptua zientifikoki argitzen arloan kohesioa lortzeko eta bere bilakaera teoriko, enpiriko, profesional eta politikoa ahalbidetzeko. Horri dagokionez, ezinbestekoa da Gurasotzako Hezkuntza delakoaren kontzeptualizazio zabalago batera jotzea, bere baitan sartuz ez bakarrik gurasoei zuzendutako ekintzak baizik eta baita ere haurrei, gazteei, tutoreei eta familiaren ongizatea hobetzeko lanean ari diren gainontzeko hezitzaileei.
2. Espezialista taldeak sortu behar dira elkarrekin lan egin dezaten eta aitor dezaten familia haurren garapen eta heziketarako testuinguru potentzial gisa aztertzen duten diziplina zientifiko ezberdinen arteko koordinazio eta osagarritasunak daukan garrantzia.
3. Erantzuna eman behar zaie gaur egungo guraso eta familiek dituzten beharrizan anitzei, saiatuz prestakuntza programak egokituz joan daitezen lantzean sortzen diren aldaketa eta beharrizan berrietara, horiek sortu ahala.
4. Jarraitu egin behar da ahaleginak egiten bai gurasoen prestakuntza programak dinamizatzen dituzten hezitzaileak eta bai familia-eskola-komunitate harremanetan inplikatutako beste profesionalak profesionalizatzen eta prestatzen.
5. Bultzatu egin behar da gurasoen prestakuntza hala esparru publikoan nola pribatuan, filosofia prebentibo baten bidez hobetuz familia, eskola eta gizartearen arteko harremanak
6. Sentsibilizazio kanpainak bultzatu behar dira guraso, irakasle eta familia, eskola eta komunitatearen arteko harremanak lantzen diharduten gainerako profesionalei zuzenduak, aintzat har ditzaten gurasoen prestakuntza eta guraso izateko heziketa kalitatezko hezkuntza baten funtsezko osagaia bezala.
7. Gurasoen prestakuntzarako eta, orokorrean, gurasotzako hezkuntzarako programa, baliabide eta material berriak diseinatu eta ebaluatu behar dira. Programak aisa egokitzeko modukoak izan behar dira, profesionalek erraz egokitu ditzatzen familia, eskola eta komunitateen ezaugarrietara.

8. Metodologia eta ebaluazio prozedura berriak garatu behar dira programok gainbegiratzeko, horietaz gogoeta egiteko eta euren praktika etengabe hobetzeko.
9. Teknologia berriak aplikatu eta garatu behar dira jakintza arlo honetan.
10. Guraso izateko heziketa kalitateko hezkuntzaren funtsezko osagai bat bezala garatzeko baldintza eta baliabideak ahalbidetuko dituzten familiaren inguruko politikak bultzatu behar dira. Horri dagokionez, gomendagarria da gurasoei zuzendutako prestakuntza programak abiatzearekin batera haur edo gazteei zuzendutako familia bizitzarako heziketa programak ere abiatzea, komunitate mailako heziketa ekimen zabalago batzuen barruan integraturik, helburu eta eduki komunen zerbitzura eta eskola, familia eta komunitatearen arteko zubiak eraikitzeko.

Jasotze-data: 2003-11-28
Onartze-data: 2004-04-04

***Abstract***

*The training of parents constitutes a strategy which in itself can promote the collaboration between the family, the school and the community but whose efficacy and effectiveness depend on the level of coordination and consensus between the social, political and educational institutions. In this sense, although there has been an advance in the development of interest in working together, the reality is that these actions are specific and, on occasions, the fruit of the will or initiative of those who make them possible. In this article we consider the training of parents, in the first place reviewing the concept and the characteristics of the training programmes for parents such as the principles on which they are based. Secondly, some of the subjects of investigation which are currently being developed about this topic are put together and the main subjects pending, that we consider will be awaiting response in the future from the family and the educational and social institutions, are pointed out.*

***Keywords:*** *Family. Educative Institutions. Parents education. School and community.*

*La formación de padres constituye una estrategia que en sí misma puede fomentar la colaboración entre la familia, la escuela y la comunidad pero su eficacia y efectividad depende del nivel de coordinación y consenso entre las instituciones sociales, políticas y educativas. En*

*este sentido, si bien se ha avanzado en el desarrollo del interés por trabajar juntos, la realidad muestra que estas acciones son puntuales y, en ocasiones, fruto de la voluntariedad o iniciativa de los que las posibilitan.*

*En este artículo se presenta una reflexión sobre la formación de padres revisando en primer lugar, el concepto y las características de los programas de formación de padres así como los principios básicos sobre los que se sustenta. En la segunda parte, se recogen algunos de los temas de investigación que se están desarrollando en la actualidad sobre este tópico y se apuntan los principales temas pendientes para el futuro que, consideramos, esperan respuesta por parte de la familia y de las instituciones educativas y sociales.*

***Palabras clave:*** *Familia. Instituciones educativas. Formación de padres y madres. Escuela y comunidad.*

---

*La formation des parents est une stratégie qui par elle-même peut encourager la collaboration entre la famille, l'école et la communauté, mais son efficacité et son caractère effectif dépendront du niveau de coordination et de consensus entre les institutions sociales, politiques et éducatives. Dans ce sens, s'il est vrai que l'intérêt pour un travail conjoint a augmenté, la réalité met en évidence que ces actions sont ponctuelles et parfois le fruit de la volonté ou de l'initiative de ceux qui les rendent possible. Dans cet article sera présentée une réflexion sur la formation des parents qui passe en revue en premier lieu le concept et les caractéristiques des programmes de formation de parents ainsi que les principes de base sur lesquels elle s'appui. La deuxième partie présente certains thèmes sur lesquels des recherches ont cours actuellement dans le cadre de ce sujet et relève les principaux thèmes à aborder dans le futur, qui, à notre avis réclament une réponse de la part de la famille et des institutions éducatives et sociales.*

***Mots clé:*** *Famille. Institutions éducatives. Formation des parents. École et collectivité.*

## BIBLIOGRAFIA

ARCUS, M.E. y THOMAS, J. (1993): «The nature and practice of Family Life Education». En M.E. ARCUS, J.D. SCHVANEVELDT y J.J. MOSS (Ed.*), Handbook of Family Life Education. The practice of Family Life Education*. Bol. 2 (1-32). Newbury Park: Sage.

ASOCIACIÓN DE PADRES EUROPEA (2000): Informe final del programa piloto de formación para padres de la Asociación de Padres Europea (http://www.epa.be/e/themes/training/projpil.html)

BARTAU, I (1992): «Intervención familiar: una reflexión acerca de las investigaciones actuales en torno a las relaciones familia-escuela». *V Seminario Iberoamericano de Orientación. A.E.O.E.P.* (362-367).

BARTAU, I. e IMBERT, C. (1990): «Aplicación y evaluación del programa de intervención P.E.C.E.S de Dinkmeyer y McKay en el País Vasco». *Revista de Investigación Educativa, 8, 16* (333-335).

BARTAU, I. y MAGANTO, J.M. (1994): «Intervención psicopedagógica familiar: adaptación, aplicación y evaluación del programa S.T.E.P. /adolescencia de Dinkmeyer y Mckay, en el País Vasco». *Revista de Investigación Educativa, 23* (344-351).

BARTAU, I., MAGANTO, M., ETXEBERRIA, J., y MARTÍNEZ, R. (1999): «La implicación educativa de los padres: Un programa de formación». *Revista Española de Orientación y Psicopedagogía, 10, 17,* (43-52).

BARTAU, I., MAGANTO, J.M. y ETXEBERRIA, J. (2001): «La formación de padres: Una experiencia educativa». *Revista Iberoamericana de Educación*, *25*, (1-7) (http://www.oei.es/revista.htm) (ISSN:1022-6508-X).

BARTAU, I., MAGANTO, J.M. y ETXEBERRIA, J. (2002): «La implicación en el trabajo familiar: fuentes de influencia e implicaciones educativas». *Revista de Educación*, *329*.

BARTAU, I., MAGANTO, J.M. y ETXEBERRIA, J. (2003): *Diseño, elaboración y evaluación de un programa de formación de padres para desarrollar la corresponsabilidad familiar.* Euskal Herriko Unibertsitateak diruz lagundutako Ikerketa proiektua.

BOUTIN, G. y DURNING, P. (1997): *Intervenciones socioeducativas en el medio familiar*. Madrid: Narcea.

BROCK, G.W., OERTWEIN, M. y COUFAL, J.D. (1993): «Parent Education: Theory, research, and practice». En M.E. ARCUS, J.D. SCHVANEVELDT y J.J. MOSS (Ed.): *Handbook of Family Life Education. The practice of Family Life Education*, *2* (87-114): Newbury Park:Sage.

BRUNET, J.J. y NEGRO, J.L. (1985): *¿Cómo organizar una escuela de padres?* Tomos I y II. Madrid: S. Pío X.

CATALDO, C.Z. (1991): *Aprendiendo a ser padres: conceptos y contenidos para el diseño de programas de formación de padres*. Madrid: Visor.

DEMBO, M.H., SWEITZAR, M., LAURITZEN, P. (1985): «An evaluation of group parent education: behavioral, PET, and adlerian programs». *Review of Educational Research, 55, 2* (155-200).

DENDALUCE, I (2002): «Familia y nuevas tecnologías». Curso presentado en los Cursos de Verano de la Universidad del País Vasco.

DURNING, P. (1995): *Education familiale. Acteurs, processus et enjeux*. París: Presses Univeritaires de France.

DURNING, P. (Dir.) (1988): *Education familiale. Un panorama des recherches internationales*. Paris: Matrice.

FINE, M.J. (Ed.) (1980): *Handbook on parent education*. New York: Academic Press.

FINE, M.J. (Ed.) (1991): *The second handbook on parent education*. San Diego: Academic Press.

FINE, M.J. y BROWNSTEIN, C. (1983): «Parent education: Problems, promises and implications for school social workers». *Social Work in Education, 6* (44-55)

FINE, M.J. y HENRY, S.A. (1991): «Professional issues in parent education». En M.J. FINE (Ed.): *The second handbook on parent education* (3-20). San Diego: Academic Press.

GINÉ I GINÉ, C. (1995): «Contexto familiar y retraso en el desarrollo: Análisis de la interacción padres-bebé». *Siglo Cero (23-30).*

HARMIN, D. y BRIM, O.G., Jr. (1980): *Learning to be parents: Principles, programs and methods. Beverly Hills*, CA: Sage.

HICKS, M. y WILLIAMS, J.W. (1981): «Current challenges in educating for parenthood». *Family Relations: Journal of Applied Family And Child Studies*, *30* (579-590).

MAGANTO, J.M. y BARTAU, I. (1999): «Intervención familiar ¿es posible la prevención?». *Revista Comunidad Educativa, 260* (8-12).

MAGANTO, J.M. y BARTAU, I. (en prensa): *La corresponsabilidad familiar: cómo fomentar la cooperación y la responsabilidad de los hijos*. Pirámide: Madrid.

MAGANTO, J.M., BARTAU, I. DE LA CABA, A. (1996): «Intervención comunitaria: Un programa de habilidades sociopersonales dirigido a la comunidad educativa». *XI Congreso Nacional de Pedagogía*, Tomo II (170). San Sebastian.

MAGANTO, J.M., BARTAU, I. DE LA CABA, A. (1997): «Intervención para el desarrollo de habilidades sociopersonales en un grupo de profesores». En J.A. BELTRÁN, V. SANTIUSTE, P. FERNÁNDEZ, A. TOCINO y P. FERNÁNDEZ: *Nuevas perspectivas en la intervención psicopedagógica: Orientación, educación especial y formación del profesorado*. Vol. II, (842-847). Servicio de Publicaciones de la Universidad Complutense de Madrid.

MAGANTO, J.M., BARTAU, I., DE LA CABA, M.A. (1998): «Esku-hartze eta ebaluazioa guraso eta irakasleen komunikazio-gaitasunen garapenerako, eta beren eragina seme-alaba/ikasleen garapen pertsonalean». *Tantak,* 19 (117-140).

MAGANTO, J.M., BARTAU, I., ETXEBERRIA, J. y MARTÍNEZ, R. (2000): «Evaluación de un programa de intervención dirigido a fomentar la participación de la comunidad educativa en los centros escolares». *Bordon*, 52, 2 (197-211).

MAGANTO, J.M. y BARTAU, I. (1996): «Orientación Familiar». *Revista de la Asociación Catalana de la Orientación Escolar y Profesional (A.C.O.E.P.),* 8, 15 (19-27).

MAGANTO, J.M. Y BARTAU, I.(1994): «Intervención familiar: percepción de las prácticas educativas y estrategias de comunicación padres-hijos». En G. MUSITU: *Intervención Comunitaria* (177-182): Universidad de Valencia. Cristobal Serrano Villalba, Valencia.

MAIQUEZ, M.L., CAPOTE, C. y RODRIGO, M.J. (1999): *Programa de enriquecimiento experiencial para padres*. Visor: Madrid.

MAIQUEZ, M.L., CAPOTE, C., MARTÍN, J.C. y RODRIGO, M.J. (2000): «Programa semi-presencial para madres y padres en prevención primaria». En el Simposium sobre «La formación de madres y padres en los ámbitos de la intervención comunitaria y psicopedagógica» organizado por Rodrigo en el *I Congreso Hispano-Portugues de Psicología.* Santiago-A Coruña. Septiembre, 2000.

MARIN, M.A. y RODRÍGUEZ, S. (2001): «Prospectiva del diagnóstico y la educación». *Revista de Investigación Educativa*, 19, 2 (315-362).

MARTÍN, J.C., RODRIGO, M.J., MAIQUEZ, M.L (2000): «Programa presencial para madres en situación de riesgo». En el Simposium sobre «La formación de madres y padres en los ámbitos de la intervención comunitaria y psicopedagógica» organizado por Rodrigo en el *I Congreso Hispano-Portugues de Psicología.* Santiago-A Coruña. Septiembre, 2000.

Martínez, A y otros: «Prevención del consumo de drogas desde la familia: evaluación de necesidades». Comunicación presentada en la *VII Convegno Internazionalle di Educazione Familiare* (Padua-Italia).

Martínez, A. (2000): «La formación de padres y madres en los centros escolares. Una respuesta a las necesidades de cooperación entre las familias y el centro escolar». En el Simposium sobre «La formación de madres y padres en los ámbitos de la intervención comunitaria y psicopedagógica» organizado por Rodrigo en el *I Congreso Hispano-Portugues de Psicología.* Santiago-A Coruña. Septiembre, 2000.

Medway, F.J. (1991): «Measuring the effectiveness of parent education». En M.J. Fine (Ed.), *The second handbook on parent education* (237-256). San Diego: Academic Press.

Musitu, G. y García, F. (2001): *Escala de estilos de Socialización Parental en la Adolescencia*. Tea: Madrid.

Palacios, J. e Hidalgo, M.V. (1996): «Apoyo a las familias a durante la transición a la paternidad. Evaluación de un programa de educación de padres». *Cultura y Educación*, 4 (71-84).

Palacios, J., Lera, M.J. y Moreno, M.C. (1994): «Evaluación de los contextos familiares y extrafamiliares en los años preescolares: Escala HOME y ECCES». *Infancia y Aprendizaje*, 66 (71-88).

Pourtois, J.P. (1984): *Eduquer les parents ou comment stimuler la compétence en education*. Bruselas: Labor.

Romero, F. (1998): *Los centros de orientación familiar en España. Un análisis crítico*. Servicio de publicaciones Universidad de la Palmas de Gran Canaria.

Sánchez Vidal, A. (1996): *Psicología Comunitaria. Bases conceptuales y métodos de intervención*. EHU: Barcelona.

Sastre y Riba, S. y Domenech, M. (1998): «Estrategias para padres de niños superdotados». Comunicación presentada en el *Congreso Internacional «Respuestas Educativas para alumnos superdotados y talentosos»*. Zaragoza.

Tavoillot, H. (1982): «Educación familiar y educación escolar». En G. Avancini: *La pedagogía en el siglo xx* (263-273). 3.ª ed. Narcea, Madrid.

Triana, B. y Simon, M.I. (2000): «La formación de las familias adoptantes». En el Simposium sobre «La formación de madres y padres en los ámbitos de la intervención comunitaria y psicopedagógica» organizado por Rodrigo en el *I Congreso Hispano-Portugues de Psicología.* Santiago-A Coruña. Septiembre, 2000.

Velázquez, M. Los Certales, F. (1987): *La escuela de padres. Manual práctico*. Alfar, Sevilla.

Vila, I. (1997a): *Entorn social i familiar i intervenció psicopedagógica*. Barcelona: Universitat Oberta de Catalunya.

Vila, I. (1998): «Intervención psicopedagógica en el contexto familiar». En M.J. Rodrigo y J. Palacios (Coords.), *Familia y desarrollo humano* (501-519). Madrid: Alianza Editorial.

Wapner (1993): «Parental development: A holistic, developmental systems-oriented perspective». En J. Demick, K. Bursik y R. Dibiase: *Parental Development*. Lawrence Erlbaum Associates, Hillsdale.